

PL09002

KARATULA, PROZEDURA IREKI ETA PRESAZKO TRAMITE BIDEZ OBRAK KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIARENA.

1.- Kontratuaren xedea:

TOLOSAN, ORIA IBAIAN, PRESA PNEUMATIKOA ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN 1. SOLUZIOARI DAGOZKION OBRAK EXEKUTATZEA.

Proiektua IKAUR S.L.k idatzia da.

2.- Kontrata aurrekontua:

1.783.845,36 € (BEZ barne)

3.- Aurrekontu kontsignazioa eta partida:

Azaroaren 28ko Errege Lege-Dekretuaren ondorioz sortutako Tokiko Inbertsioetarako Fondo Estatalari adskribitutako obra.

4.- Egiteko epeak:

Gehienezko exekuzio epea: 5 hilabete. Edozein kasutan, obrak bukatuta egon behar du 2009ko abenduaren 31n.

Obra behar bezala egina dagoela iritziko da, berme epea iragan eta gero obra zuzendariak aldeko txostena idazten duenean.

5.- Prezioak berrikustea:

Legearen 77.1 artikulua araberan, exekuzio epeari dagokionez ez dago prezio berrikuspenik.

6.- Proiektua eta gainontzeko dokumentazioa hemen aztertu daitezke:

Kopitec – Gudari kalea, 8 behe. Tel. 943 654 028

Kopibat - Lizardi plaza, 2 behe Tel. 943 655 166

7.- Eskaintzak non eta zein epetan aurkeztu:

Tolosako Udaleko Sarrera Erregistroan (Plaza Zaharra, 6), lizitazio prozesuaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, hamahirugarren (13) egun naturaleko 13:00ak arte.

Epea larunbat, igande edo jaiegunean bukatuz gero, hurrengo astelehen edo lehenbiziko laneguna arte luzatuko da.

8.- Kartazalak irekitzea:

Udaletxean, lehen aipatutako argitarapena egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hamazazpigarren (17) eguneko 12:00etan.

9.- Behin-behineko fidantza: 38.768 €

Behin betiko fidantza: Adjudikazio zenbatekoaren % 5, BEZik gabe.

10.- Enpresa sailkapena: Bai.

TALDEA: E AZPITALDEA: 7 eta 5 KATEGORIA: d

11.- Berme epea: Bi urte.

12.- Presako tramitazioa: Bai.

13.- Adjudikaziorako oinarrizko irizpideak, garrantzi handienetik gutxienera sailkatuta:

Obraren adjudikazioa hurrengo baremo hauek aplikatuz egingo da:

a) Eskaintza ekonomikoa: 50 punturaino

- Prezioen puntuazioan, puntu kopuru handiena (60 puntu kasu honetan) proposamen kopuru txikienari (K) emango zaio, eta gainerakoei (R) hurrengo formula aplikatuko zaie:

Puntuazioa, $R = 50 - 1,5 \times (\text{Baja K} - \text{Baja R})$; bajak ehunekotan adieraziko dira; emaitza negatiboa bada, 0 puntu emango dira.

- Hasiera batean behintzat, desproporzionatutzat edo ausartegitzat joko da, aurkeztutako proposamen guztien baja portzentajeen batez besteko aritmetikoa, gutxienez, 10 unitatez gainditzen duen baja portzentaia duen proposamena. Horrelakotzat deklaratu baino lehen bertan sartuta dauden lizitatzaille guztiei informazio eskaera egingo zaie, dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoaz gainera.

b) Eskaintzaren balio teknikoa: 30 punturaino

Eskaintzaren Balio Teknikoaren puntuazioak hurrengo kontzeptu hauek izango ditu kontuan, jarraian adierazten den gehienezko puntuazio partzialarekin:

- Obraren planifikazio eta antolamendua 25 puntu arte

Kontzeptu hau hurrengo puntuetan garatuko da:

- Obraren analisia memoria, obraren atal nabarmenen azterketarekin, planteatutako lan programaren bideragarritasuna baldintzatu edo harengan eragin lezaketen atalak, etab. Edonola ere, obraren exekuzioak ziurtatu behar du ibaiko uren etengabeko igarotzea.

*Oharrak:

- Obraren exekuzioak ziurtatu behar du, beti eta une oro, ura igarotzea ibaitik.
- Exekuzio proiektuak ibaiko ura Tolosako Errotako kanaletik igarotzea aurreikusten du. Horregatik, obraren antolaketako edozein aldaketak, aipatu igarobidean aldaketa ekartzen badu –fasekako atagia sistema bidez, etab.- aldaketa horiek jaso behar dira obraren memorian eta proposamen ekonomikoan.
- Azpikontratatu nahi diren lanen zerrenda, aurreikusten diren enpresen berri emanez.
- Eraiki ondorengo zerbitzua: Berme epea luzatzea
..... 4 puntu arte
- Kalitatea: Puntu 1 arte
- Balorazioa ondorengoaren arabera egingo da: Puntu 1 emango zaio ezaugarri hau duen eskaintzari: UNE-EN ISO 9001 edo 9002 kalitate ziurtapena, obraren zenbatekoaren % 75 baino gehiago den eraiketa prozesurako, edo borondatez 12 hilabete luzatzea Plegu honetan aurreikusitako berme epea.
- 0 puntu emango zaizkio ezaugarri hau duen eskaintzari: UNE-EN ISO 9001 edo 9002 kalitate ziurtapena ez edukitzea, obraren zenbatekoaren % 75 baino gehiago den eraiketa prozesurako, edo 12 hilabete ez luzatzea Plegu honetan aurreikusitako berme epea.

c) Enpresaren lan egoera: 15 punturaino

Obrak egiteko kontratistak hartu beharko lukeen langabetu kopuruaren arabera egingo da balorazioa.

Horretarako, kontratistak adierazi behar du zenbat pertsona jarriko dituen obrak egiteko lanetan, bereiziz enpresakoak direnak eta kontratatu behar dituen berriak.

Aipatu puntuazioa era honetan banatuko da:

- 1 eta 5 bitarteko langabetu kopuruaren kontratazioa: 3 puntu.
- 6 eta 15 bitarteko langabetu kopuruaren kontratazioa: 8 puntu.
- 16 langabetu edo gehiagoren kontratazioa: 10 puntu.
- Kontratuaren exekuzioan enplegatzea emakume langileak, eta horiek kontratatutako langabetu guztien % 30 edo gehiago izatea: 5 puntu.

Hori guztia egiaztatu behar da lizitatzailaren, edo, hala badagokio, bere ahalorde edo ordezkariaren deklarazioaren bidez. Deklarazio horretan adierazi behar du, bere erantzukizunaren pean, kontratatu behar duen langile kopurua.

d) Epea: 5 puntu.

Lizitaziotik kanpo geratuko litzateke plegu honetako zazpigarren klausulan adierazten den exekuzio epeari lotzen ez zaion exekuzio proposamena, aurkeztutako planifikazio eta antolamendu memoriaren arabera.

- 14.- Lizitatzailerak proposamen ekonomikoarekin batera aurkeztu behar duen dokumentazioa 2 zenbakidun kartazalean, adjudikaziorako oinarritzkoak diren irizpideak betetzen dituela egiaztatzeko.**

Lizitatzailerak aurkeztu behar dute beharrezkoa den dokumentazio guztia, hautaketa irizpideak betetzen dituztela frogatzeko.

- 15.- Eraikuntzako eta erantzukizun zibileko arrisku orotako aseguruia:**

Bai, arrisku orotako aseguruia 1.300.000 euroko berme mugarekin (exekuzio materiala) eta 600.000 euroko zenbatekoko erantzukizun zibileko aseguruia.

Tolosan, 2009ko urtarrilaren 27an

KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA, OBRAK KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ETA PRESAZKO TRAMITEZ.

LEHEN KLAUSULA. Helburua

Kontratuaren helburua da hurrengo obra hau egitea: *TOLOSAN, ORIA IBAIAN, PRESA PNEUMATIKOA ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN 1. SOLUZIOARI DAGOZKION OBRAK EXEKUTATZEA.*

Proiektua IKAUR S.L.k idatzia da.

Proiektuak betetzen ditu Azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege-Dekretuko 1. artikulua baldintzak.

BIGAREN KLAUSULA. Kontratuaren bidez asebate nahi diren Administrazio beharrak.

Klausula administratibo partikularren agiri honetako kontratuaren exekuzioarekin hurrengo behar honi erantzuten zaio: ZERKAUSIKO PRESAREN MAILAN NABIGAGARRITASUNAREN ETA MANIOBRATZEKO BALDINTZAK HOBETZEA.

HIRUGARREN KLAUSULA. Lizitazio Oinarriaren Aurrekontua

a) Lizitazioaren oinarri aurrekontuaren zenbatekoa milioi bat, zazpiehun eta laurogeita hiru mila eta zortziehun eta berrogeita bost euro eta hogeita hamasei zentimokoa da (1.783.845,36 €).

b) Aurreko kopurutik Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion zenbatekoa berrehun eta berrogeita sei mila eta berrogeita zazpi euro eta hirurogeita lau zentimokoa da (246.047,64 €).

LAUGARREN KLAUSULA. Urtekoen banaketa

Kontratuaren aurrekontuari dagozkion kopuruak ordainketa urteko bakar batean abonatu da, 2009 urteari dagokiona.

BOSGARREN KLAUSULA. Aurrekontu aplikazioa

Azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege-Dekretuaren ondorioz sortutako Tokiko Inbertsioetarako Fondo Estatalaren kargura finantzatzen da proiektua. Lurralde Kooperazioko Estatuko Idazkariaren onspena (9/2008 Errege Lege-Dekretuko 5.4 artikulua): _____, Ebazpen data: _____.

SEIGARREN KLAUSULA. Kontratuaren Araubide Juridikoa eta Kontratu Izaerako Dokumentuak

Izaera orokorrarekin Tokiko Korporazioetako kontratuarako xedatua dagoenaren kalterik gabe, kontratuak hurrengo arauari jarraituko die:

- Azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege-Dekretua, Tokiko Inbertsioetarako Fondo Estatala eta Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko Estatuaren Fondo Berezi bat sortu eta haren finantzaketarako aparteko kredituak onartzen dituenak.

- Lurralde Kooperazioko Estatu Idazkariaren ebazpena, 2008ko abenduaren 9koa, onartzen dituen eskaerak aurkezteko eredia, tramitazio baldintzak eta baliabideen justifikazioa, libratuak izan diren Tokiko Inbertsioetarako Fondo Estatalaren kargura (Azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege-Dekretuaren bidez sortu dira Tokiko Inbertsioetarako Fondo Estatala eta Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko Estatuaren Fondo Berezia).

— Urriaren 30eko 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena.

— Administrazio Publikoetako Kontratuen Legeko Erregelamendu orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartua, 30/2007 Legearen kontra ez doan hartan.

Agiri honetaz gainera, kontratu izaera izango dute hurrengo dokumentu hauek:

- Preskripzio teknikoaren plegua.
- Planoak.
- Proiektuaren memoria, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 128 artikuluan xedatutako edukian.
- Kontratazio organoak onarturiko lan programa.
- Prezioen koadroak.
- Kontratua formalizatzen duen dokumentua.

ZAZPIGARREN KLAUSULA. Exekuzio epea

Kontratua gauzatzeko epea 5 hilabetekoa izango da. Edozein kasutan, obrak bukatuta egon behar du 2009ko abenduaren 31n.

ZORTZIGARREN KLAUSULA. Adjudikazio prozedura

Kontratua esleitzeko, prozedura irekia eta presako tramitea baliatuko dira, hain zuzen ere, Legearen 28. eta 96. artikuluek epeak murrizteari buruz diotena eta 9/2008ko Errege Lege-Dekretuaren 9.1. artikulua dioena.

BEDERATZIGARREN KLAUSULA. Kontratuaren lizitazio publikitatearen gastuetatik esleipendunak ordaindu beharreko gehieneko kopurua.

Adjudikaziodunak lizitazio gastu guztiak ordaindu behar ditu.

HAMARGARREN KLAUSULA. Sailkapena

Lizitatuak honako talde, azpitalde eta kategoria hauetan sailkatuta daudela egiaztatu behar dute: Taldea: E Azpitaldea: 7 eta 5 Kategoria: d

HAMAIKAGARREN KLAUSULA. Bermeak

- Behin-behinekoa: Lizitatuak aurkeztu behar duten behin-behineko bermearen zenbatekoa honako hau da: lizitazioaren oinarri aurrekontuaren 100eko 3, Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu gabe.
- Behin betikoa: Kontratuaren behin-behineko adjudikaziodun gertatutako lizitatuak kontratuaren adjudikazio zenbatekoaren % 5eko bermea jarri behar du, BEZ gabe.

HABIGARREN KLAUSULA. Proposamenen aurkezpena

Gutun-azal itxietan aurkeztuko dira lizitaziorako proposamenak, era honetan identifikatuta: kanpoaldean, parte hartu nahi den lizitazioaren aipamena, lizitatzailleak edota bere ordezkariak sinatuta, eta izen-abizenak edo enpresaren izen soziala jarrita. Gutun-azal bakoitzaren barruan, orri independente batean adierazitako da bere edukia, zerrendan jarrita eta zenbakiekin adierazita.

Kontratuaren iragarkian zehaztutako kontratazio organoaren dependentzietan edo bulegoetan aurkeztu behar dira gutun-azalak. Aurkezten duenari, agiri bat emango zaio honako datu hauekin: lizitatzaillearen izena, kontratuaren xedearen aipamena eta zein egun eta ordutan aurkeztu duen.

Proposizioak posta bidez ere aurkeztu ahal izango dira. Kasu horretan, enpresariak, batetik, justifikatu egin beharko du posta-bulegotik zein egunetan bidali duen; eta, bestetik, iragarri behar dio kontratazio organoari, telex, fax edo telegrama bidez, bidali duela eskaintza.

Bi baldintzok bete ezean, ez da onartuko dokumentazioa, kontratazio organoak hura jasotzen badu iragarkian adierazitako data eta ordua igaro eta gero.

Hala ere, aipatutako datatik hamar egun igaro eta dokumentazioa ez bada jaso, ez da onartuko inola ere.

HAMAHIRUGARREN KLAUSULA. Proposamenak aurkezteko modua

Proposamenak hurrenez hurren zenbakitutako bi gutun-azaletan aurkeztu behar dira:

A. 1 ZENBAKIDUN GUTUN AZALA. Urriaren 30eko 30/2008 Legearen 130. artikuluan xedatutakoari jarriki, legeetan aurreikusitako egiazkotasun baldintzak bete beharko dituen dokumentazioa bilduko du:

1) Nortasun juridikoa egiaztatzeko dokumentuak: Enpresari indibidualek, NANaren kopia kautoa; pertsona juridikoak diren enpresariak, entitate sortu izanaren eskritura edo dokumentuak eta haren estatutuak, Merkataritzako Erregistroan edo dagokion erregistroan behar bezala inskribatuak.

Espainiarrak ez diren enpresarien jarduteko gaitasuna, Europar Batasuneko Estaturen bateko nazionalak direnena, diharduten Estatuko legeriaren arabera dagokion erregistroan egindako inskripzio agiria, edo zinpeko aitortpen edo ziurtagiri bat aurkeztuz, arauzko terminotan, aplikaziozkoak diren Europar Batasuneko xedapenen arabera.

Atzerriko gainerako enpresarien jarduteko gaitasuna frogatzeko, Espainiak estatu horretan duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorren txostena aurkeztu beharko da, edo, bestela berriz, enpresak helbidea duen lurraldeko Bulego Kontsularrarena.

2) Ordezkaritza egiaztatzeko dokumentuak: Proposamena ez badute lizitatzailleek berek sinatu, proposamena izenpetu dutenen alde emandako boterea erantsi behar, baita ahaldunen Nortasun Agiri Nazionalaren kopia kautoa ere.

3) Aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko konpromisoaren dokumentua: Aldi baterako elkartuta aurkezten diren enpresarien kasuan, pribatua izan litekeen agiri baten bidez adierazi beharko dute, esleipena jasoz gero, delako elkartearen eratzeko dutela. Dokumentu hori enpresa guztien ordezkariak sinatu beharko dute eta, bertan, kontratuarekin zerikusia duten gaietarako

administrazioaren aurrean ABEEaren ordezkari izateko nor izendatu duten adierazi beharko dute, baita horietako bakoitzari ABEEan dagokion partaidetza ere.

4) Saikapenaren egiaztatze dokumentuak. Kontratatzailearen saikapena eskatu beharrekoa denean, enpresa lizitatzailerak plegu honetan eskatutako baldintzen terminoetan saikatuta dagoela frogatzen duen egiaztagiria erantsi behar da.

Saikapena jaso zain dauden enpresek horretarako beharrezko eskaera egin dutela frogatzen duen dokumentua entregatu behar dute; eta egiaztatuta, era berean, eskatutako saikapena lortu dutela, dokumentazioaren akatsak konpontzeko edota falta diren dokumentuak aurkezteko aurreikusitako epearen barruan.

Saikapenik ez badago, edo ez bada nahikoa, huts hori ezin izango da bete kaudimena kanpoko bitartekoekin integratuta.

Europar Batasuneko enpresa ez espainiarrek saikapen ziurtagirien edo antzeko dokumentuen bitartez frogatu ahal izango dute saikapena, betiere kontratatzeko baimena duten Europar Batasuneko estatu kideen enpresaburuen zerrenda ofizialetan erregistratuta daudela egiaztatzen badute edo enpresaburua ezarrita dagoen Estatu kideko legeekin bat datozen Europar Batasuneko ziurtatze arauak betetzen dituzten erakundeek igorritako ziurtagirien bidez frogatzen badute. Dokumentu horiek enpresaburua zerrendan sartzea edo ziurtagiria igortzea ahalbidetu duten erreferentzia bildu beharko dute, baita lortutako saikapena ere.

5) Behin-behineko garantiaren eratze dokumentua edo eratu izanaren frogagiria.

6) Kontratatzeko debekuaren inongo prozeduratan sartuta ez dagoela frogatzen duen dokumentua, indarreko xedapenek ezarritako zergak ordaindu izanaren eta Gizarte Segurantzari ordaindu izanaren adierazpena ere bilduko duena. Eta esleipena jasoko duen enpresariak betekizun hori egiaztatzeko ziurtagiria behin betiko esleipena baino lehen aurkeztu beharko du.

7) Atzerriko enpresa orori eskatzen zaion dokumentazio osagarria. Atzerriko enpresek, kontratua Espainian egingo den kasuetan, Espainiako edozein mailatako auzitegi eta epaitegien jurisdikzioaren menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuaren ondorioz, zuzenean ala zeharka, sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta horretarako lizitatzailerari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo diotela.

8) Helbidea: Lizitatzailerak guztiek helbide bat eman behar dute, jakinarazpenak jaso ahal izateko. Horren osagarri gisa, helbide elektroniko bat eta telefono eta fax zenbaki bat eman ahal izango dira.

9) Plantillan ezintasunak dituzten edo bazterkeria egoeran dauden pertsonak dituzten enpresak. Esleipenerako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 6. xedapen gehigarrian arauturiko lehentasuna izan nahi duten lizitatzailerak honako hauek ziurtatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dituzte: proposamena aurkeztzen duten unean bertan beren plantillako ezintasunak dituzten langileak % 2 baino gehiago direla edo enpresa lizitatzaileraren jarduera nagusia bazterkeria egoeran dauden pertsonen laneratzea dela frogatzea eta, horrekin batera, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 legearen 6. xedapen gehigarriak aipatzen duen kontratazio konpromiso formala aurkeztea.

B) 2 ZENBAKIDUN GUTUN AZALA. Kontratutako lanen prezioa adieraziko da bertan. Eskaintza ekonomikoaz bereizitako partida batean zehaztu beharko da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa. Eskaintza ekonomikoa I eranskin gisara erantsiko den ereduaren arabera aurkeztu behar da.

Gutun-azal horretan bertan sartu behar dira balorazio irizpideak –pleguko 13. karatulan eta 15. klausulan jasotzen direnak- frogatzeko baliagarriak izan daitezkeen dokumentuak.

Era berean, kontratuaren exekuzioa dela-eta, horretan lana izango duten pertsona kopuruari buruzko enpresaren adierazpena sartu behar da, bereiziz modu argian enpresakoak direnak eta kontratatu behar dituen berriak.

HAMALAU GARREN KLAUSULA. Epea, aurkezteko proposamenak eta gainerako betebeharrak

Proposamenak aurkeztu behar dira, lizitazioaren iragarkian finkatutako epearen barruan.

Interesatuaren proposamenak klausula administratibo partikularren pleguan adierazitakoari lotuko zaizkio, eta haiek aurkezteak adieraziko du klausula edo baldintza guztien, proiektuaren eta baldintza teknikoaren erabateko onarpena, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe.

Proposamenak sekretuak izango dira, eta haiek jendaurrean irekiko diren unera arte hala jarraituko dutela bermatzeko neurriak hartuko dira.

Lizitatuak bakoitzak proposamen bakarra baino ezin izango du aurkeztu. Horrek ez du esan nahi, ordea, ezin duenik beste alternatiba edo hobekuntzarik aurkeztu, hala xedatuta bada.

Ezin izango du, bestalde, beste batzuekin eratutako aldi baterako elkartean inongo proposamenik izenpetu, baldin eta indibidualki aurkeztu bada berea edo beste aldi baterako elkarteren batean agertzen bada. Arau hauetakoren bat hautsiz gero, berak izenpetutako proposamen bat bera ere ez da onartutako.

HAMABOS GARREN KLAUSULA. Kontratua adjudikatzeko irizpideak

Obraren adjudikazioa hurrengo baremo hauek aplikatuz egingo da:

a) Eskaintza ekonomikoa: 50 punturaino

- Prezioen puntuazioan, puntu kopuru handiena (50 puntu kasu honetan) proposamen kopuru txikiari (K) emango zaio, eta gainerakoei (R) hurrengo formula aplikatuko zaie:

Puntuazioa, $R = 50 - 1,5 \times (\text{Baja K} - \text{Baja R})$; bajak ehunekotan adieraziko dira; emaitza negatiboa bada, 0 puntu emango dira.

- Hasiera batean behintzat, desproporzionatutzat edo ausartegitatzat joko da, aurkeztutako proposamen guztien baja portzentajeen batez besteko aritmetikoa, gutxienez, 10 unitatez gainditzen duen baja portzentaia duen proposamena.

Horrelakotzat deklaratu baino lehen bertan sartuta dauden lizitatzaille guztiei informazio eskaera egingo zaie, dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoaz gainera.

b) Eskaintzaren balio teknikoa: 30 punturaino

Eskaintzaren Balio Teknikoaren puntuazioak hurrengo kontzeptu hauek izango ditu kontuan, jarraian adierazten den gehienezko puntuazio partzialarekin:

- Obraren planifikazio eta antolamendua 25 puntu arte

Kontzeptu hau hurrengo puntuetan garatuko da:

- Obraren analisia memoria, obraren atal nabarmenen azterketarekin, planteatutako lan programaren bideragarritasuna baldintzatu edo harengan eragin lezaketen atalak, etab. Edonola ere, obraren exekuzioak ziurtatu behar du ibaiko uren etengabeko igarotzea.

*Oharrak:

- Obraren exekuzioak ziurtatu behar du, beti eta une oro, ura igarotzea ibaitik.
- Exekuzio proiektuak ibaiko ura Tolosako Errotako kanaletik igarotzea aurreikusten du. Horregatik, obraren antolaketako edozein aldaketak, aipatu igarobidean aldaketa ekartzen badu –fasekako atagia sistema bidez, etab.- aldaketa horiek jaso behar dira obraren memorian eta proposamen ekonomikoan.
- Azpikontratatu nahi diren lanen zerrenda, aurreikusten diren enpresen berri emanez.
- Eraiki ondorengo zerbitzua: Berme epea luzatzea 4 puntu arte
- Kalitatea: Puntu 1 arte
- Balorazioa ondorengoaren arabera egingo da: Puntu 1 emango zaio ezaugarri hau duen eskaintzari: UNE-EN ISO 9001 edo 9002 kalitate ziurtapena, obraren zenbatekoaren % 75 baino gehiago den eraiketa prozesurako, edo borondatez 12 hilabete luzatzea Plegu honetan aurreikusitako berme epea.
- 0 puntu emango zaizkio ezaugarri hau duen eskaintzari: UNE-EN ISO 9001 edo 9002 kalitate ziurtapena ez edukitzea, obraren zenbatekoaren % 75 baino gehiago den eraiketa prozesurako, edo 12 hilabete ez luzatzea Plegu honetan aurreikusitako berme epea.

c) Enpresaren lan egoera: 15 punturaino

Obrak egiteko kontratistak hartu beharko lukeen langabetu kopuruaren arabera egingo da balorazioa.

Horretarako, kontratistak adierazi behar du zenbat pertsona jarriko dituen obrak egiteko lanetan, bereiziz enpresakoak direnak eta kontratatu behar dituen berriak.

Aipatu puntuazioa era honetan banatuko da:

- 1 eta 5 bitarteko langabetu kopuruaren kontratazioa: 3 puntu.
- 6 eta 15 bitarteko langabetu kopuruaren kontratazioa: 8 puntu.
- 16 langabetu edo gehiagoren kontratazioa: 10 puntu.
- Kontratuaren exekuzioan enplegatzea emakume langileak, eta horiek kontratatutako langabetu guztien % 30 edo gehiago izatea: 5 puntu.

Hori guztia egiaztatu behar da lizitatzaillearen, edo, hala badagokio, bere ahalorde edo ordezkariaren deklarazioaren bidez. Deklarazio horretan adierazi behar du, bere erantzukizunaren pean, kontratatu behar duen langile kopurua.

d) Epea: 5 puntu.

Lizitaziotik kanpo geratuko litzateke plegu honetako zazpigarren klausulan adierazten den exekuzio epeari lotzen ez zaion exekuzio proposamena, aurkeztutako planifikazio eta antolamendu memoriaren arabera.

HAMASEIGARREN KLAUSULA. Aldaerak

Lizitatzailleek ezingo dute proiektuaren aldaerarik edo hobekuntzarik proposatu.

HAMAZAZPIGARREN KLAUSULA. Eskaintzak balore anormalak edo desproporzionatuak dituela irizteko irizpideak

Eskaintzak balore anormalak edo desproporzionatuak dituela iritziko da hurrengo kasuetan:

Esleipena irizpide bat baino gehiago aintzat hartuta egin behar denean, betiere eskaintzaren prezioa eskainitako guztien batez bestekoaren % 10 baino txikiagoa denean.

HAMAZORTZIGARREN KLAUSULA. Konfidentzialtasuna

Esleipena iragartzearen inguruan eta hautagai eta lizitatzailleei eman beharreko informazioari buruz urriaren 30eko 30/2007 Legearen xedapenek diotena baztertu gabe, eskaintzarekin igorritako informazioa sekretupekoa dela ebatzi ahalko dute, batez ere, sekretu tekniko edo komertzialak eta eskaintzaren alderdi konfidentzialak aipatzen direnean.

Kontratazio organoek ezin izango dute informazio hori zabaltu haien baimenik gabe.

Era berean, kontratistak errespetatu egin behar du kontratuaren exekuzioan eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna, eta pleguetan zein kontratuan bertan izaera hori duena edo informazioaren ezaugarriengatik konfidentzialtasunaz tratatu behar dena. Betebehar horrek bost urte iraungo du informazio hori jasotzen den unetik, pleguek edo kontratuak epe luzeago ezartzen ez badute behintzat.

HEMERETZIGARREN KLAUSULA. Prezioak berrikustea

Zazpigarren klausulan ezarritakoarekin lotuta, Legearen 77.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki, prezioak ez dira berraztertuko.

HOGEGARREN KLAUSULA. Kontratazio Mahaia

Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 10 apartatuko bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Kontratazio Mahaia kide hauek osatuko dute:

- Lehendakaria: Alkatea, edo berak izendatutako zinegotzia.
Bokalak: Dagokion batzordeko zinegotzi bat.
Arkitektoa.
Ingeniaria edo OPITa
Idazkaria.
Idazkaritzako A.O.T.
Kontuhartzailea.
Idazkaria: Arloko administrari bat.

HOGETA BATGARREN KLAUSULA. Dokumentazioa eta proposamenak irekitzea

a) Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 130.1. artikulua aipatzen duen dokumentazioa xede honetarako eraturako kontratazio mahaiak kalifikatuko du. Lehendakariak aginduko du irekitzeko dokumentazioaren gutun-azalak, eta idazkariak haietako bakoitzean agertzen diren agiri guztien zerrenda ziurtatuko du.

b) Kontratazio mahaiak 1. gutun-azalean sartu beharreko agirietan edonolako akats edo gabeziarik aurkitzen badu, interesatuei hitzez jakinaraziko die, zirkunstantzia horiek kontratazio organoaren iragarkien bidez aditzera ematearen kalterik gabe. Horrelakoetan, hiru egun izango dituzte, gehienez, lizitatzailleek kontratazio mahaiaren aurrean okerrak zuzendu edo gabeziak gainditzeko.

Egindakoa, hain zuzen, nahitaez idatzi behar den aktan jaso behar da.

c) Aurkeztutako agiriak kalifikatu eta horien balizko akatsak edo gabeziak konpondu ostean, Legearen 130. artikulua zehaztutako aurretiko betebeharrak bete dituztela egiaztatzen dituzten lizitatzailleak lehiaketan parte hartzeko onartu dituela adieraziko du mahaiak. Ondoren, kaudimenaren azterketa eta balorazioa burutuko da Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorren 82. artikulua arabera, eta adierazpen zehatz batean azalduko da zein bazterten diren eta zergatik.

d) Ekintza horien ostean, proposamenen irekiera ekitaldi publikoa aurrez jakinarazitako lekuan eta egunean gauzatuko da. Ekitaldia Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorren 83. artikulua zehaztutako betebeharren arabera burutuko da.

HOGETA BIGARREN KLAUSULA. Behin-behineko adjudikazioa eta behin betikoa

Behin-behineko esleipena kontratazio organoak ebazpen arrazoitu batean erabakiko du, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 42 eta 135.3. artikuluetan xedatzen denaren arabera argitaratuko da.

Edozein kasutan, gehienez hogeit hamar egun naturaleko epea egongo da, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero, kasuan kasuko kontratuen behin-behineko esleipena egiteko.

Behin-behineko esleipena behin betikoa izan dadin, adjudikaziodunak honako dokumentazio hau aurkeztu behar du:

- Kontratatzeko debekurik ez izatearen ardurapeko adierazpena eta, horrez gain, dagozkion zergak eta Gizarte Segurantzako obligazioak ordaindu izanaren ziurtagiria.
- Behin betiko bermearen frogagiria. Hala onartzen denean, bermeen eraketa egiteko erabili ahalko dira bitarteko elektronikoak edo informatikoak.
- Legearen 53.2 artikulua arabera espresuki hala exijitzen denean, esleipendunak zehazki kontratuaren exekuziorako adskribitutako bitarteko materialak eta pertsonalak dituela frogatzen duen dokumentazioa.
- Behin-behineko esleipena behin betiko bilakatuko da ebazpen motibatuaren bitartez, 135.4 artikulua lehenengo paragrafoan ezarritako epea iraungitzen denetik zenbatzen hasi eta hurrengo bost eguneko epearen barruan.
- Lizitatuak aldi baterako enpresa-elkarte batean parte hartzen badute lizitazioan, elkartea eratze eskritura kontratua formalizatu baino lehen entregatu behar dute.
- Era berean, esleipendunari aseguruaren bat hitzartzeko eskatzen zaionean, kontratua formalizatu baino lehen, dagokion poliza aurkeztu behar du.

HOGEITA HIRUGARREN KLAUSULA. Kontratuaren Arduraduna, Obra Zuzendaritza eta Obrako Ordezkaria

Kontratazio organoak kontratuaren arduraduna izango den pertsona bat izendatu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 41. artikuluan xedatzen denaren arabera.

Kontratazio organoak izendatzen duen obra zuzendaria izango da zuzendaritza, ikuskaritza, egiaztatze eta zaintza lanak egingo dituen, kontrataturiko obra behar bezala egiteko. Obra zuzendariak kontratazio organoak izendatzen duen pertsonaren laguntza eduki ahal izango du.

Kontratistaren obra ordezkariek teknikari tituluduna izan behar du, eta egiaztatutako esperientzia izan behar du kontratuaren xede den obraren antzekoak diren beste obra batzuetan.

HOGEITA LAUGARREN KLAUSULA. Zuinketaren egiaztatpena eta Lanen Programa

Kontratuaren formalizazio egunean egin behar da zuinketa eta haren gaineko akta.

Esleipendunak lanen programa aurkeztu behar du, Kontratazio organoak onartzeko. Aipatu programa aurkezteko hamabost eguneko epea egongo da, kontratua formalizatu eta gero. Egitarau hori proposamenean aurkeztutakoaren garapena izango da, eta ezingo du kontratuko baldintzarik aldatu. Hura ikusita, kontratazio organoak haren aplikazioari buruzko erabakia hartu eta kontratuan sartuko du.

HOGEITA BOSGARREN KLAUSULA. Laneko Segurtasun eta Osasun Plana

Behin betiko esleipenaren jakinarazpena egiten den egunetik zenbatzen hasita hamabost eguneko epean kontratistak kontratazio organoari aurkeztuko dio laneko segurtasun eta osasun programa, eta bost eguneko epean adieraziko du onartzeko egokia den ala ez.

Dena dela, laneko segurtasun eta osasun plana onartzeko gehieneko epea hilabetekoa izango da, kontratua sinatu den egunetik zenbatzen hasita. Kontratistak aurreko paragrafoan adierazitako epeak betetzen ez dituelako obrak ezin badira hasi baimena jasotzen den egunean, ezin izango du arrazoi horregatik epea zabaltzerik eskatu.

HOGEITA SEIGARREN KLAUSULA. Epeak

Esleipendunak kontratua betetzeko ezarritako epe osoa bete beharko du; baita epe partzialak ere, halakorik ezarri bada. Epe horiek zuinketa egiaztatzeak akta sinatzen den egunaren biharamunetik hasiko dira zenbatzen.

HOGEITA ZAZPIGARREN KLAUSULA. Ordainketen araubidea

Ordainketa egingo da egindako lanen hilabeteko ziurtagirien bitartez, eta abonatuak dira Sektore Publikoko Kontratuen legearen 200. eta 215. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 147. artikuluetan eta hurrengoetan xedatuaren arabera.

Azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege-Dekretuaren 9.5 artikulua dioenaren arabera, kontratua guztiz edo partzialki bete dela ziurtatzen duten agiriak aurkeztu edo lanen ziurtagiria egin eta gero, hogeita hamar egun natural izango dituzte udalek kontratistei lanen prezioa ordaintzeko.

Kontratistak lanak aurreikusitakoa baino azkarrago egin ahal izango ditu, obrak kontratuan jasotako epearen edo epeen barruan egin daitezkeen, salbu eta obren zuzendaritzaren iritziz arrazoiak badaude hura desegokitzat jotzeko. Nolanahi ere, urteko bakoitzean dagokiona baino gehiago jasotzeko eskubiderik ez du izango, egindako lanaren edo emandako ziurtagirien zenbatekoa edozein dela ere. Horrela egindako ziurtagiriek atzeratzeagatik interesa bakarrik sorraraziko dute, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren 152. artikuluan adierazitako datatik zenbatzen hasita.

Kontratistak, bestalde, kontura eginiko ordainketak jasotzeko eskubidea izango du, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 200.3 artikuluan eta Erregelamenduko 155. eta 156. artikuluetan xedatuaren arabera. Dena dela, eskatuko zaio berme bat eratzea, abal baten bidez edo legeak onarturiko beste moduren batez.

HOGEITA ZORTZIGARREN KLAUSULA. Kontratistaren betebeharrak

Kontratistak obrak iragartzeko kartela instalatu behar du, Lurralde Kooperazioko Estatu Idazkaritzaren 2009ko urtarrilaren 13ko Ebazpenean adierazitako ereduaren eta baldintza teknikoaren arabera. Edukia euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo da.

Iragarpen kartela instalatzearen ondoriozko gastuak kontratistaren kontura izango dira.

Administrazio kontratu-egilearekiko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da "normalean euskara erabiltzea": a) ahozko komunikazioetan,

euskaraz dakiten langileek euskaraz egingo dute, hasiera batean, kontratua gauzatzeko zereginak direla-eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen bazaio kontratua gauzaten ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezen, eta, b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

Kontratu honen xede diren obretan arituko den pertsonalari dagokionez, kontratistak bete behar ditu indarrean dauden xedapenak Lan eta Gizarte Legeen arloan eta kontratua burutzen den bitartean xedatzen direnak.

Kontratistak Agindu Liburu bat eduki behar du arkitekto-zuzendariaren eskura, eta honek bertan jaso behar ditu izaten diren bisitak, gorabeherak eta aginduak, obrak dirauten bitartean. Kontratistak instrukzioaren hartu-agiria sinatu behar du.

Harrera ekitaldian exijituko da Aginduen Liburua aurkeztea, behar bezala beteta. Liburua Administrazioaren eskuetan geratuko da behin betiko harrera egiten denean.

Kontratistaren kontura dira obren zuinketa, ikuskapen eta likidazio lan fakultatiboan aurkezpen tasak eta aplikaziozkoak diren gainerako guztiak, indarrean dauden xedapenen arabera eta hauek adierazten duten moduan eta zenbatekoarekin.

Adjudikaziodunak berak gestionatu behar ditu beharrezkoak diren baimen eta lizentziak, hauek izan ezik: obretako udal lizentzia, aldamiok jartzekoak, pasabideak, galtzada irekitzeak, etab. Era berean, bere kargura izango dira gestioen gastuak, tasak eta litezkeen fidantzak.

Kontratistaren kontura eta kostura izango dira gestioak, gastu guztien ordainketa, tasak, arielak, etab. eta proiektuak idaztea eta haien ikus-onespena, eskumena duten organismoetan aurkezteko, hain zuzen ere, eskuratzeko funtzionamendu baimenak eta alta, sare eta zerbitzuen lotunea, behin-behineko eta behin betiko hartuneak, eta, oro har, instalazioen funtzionamendu egoki eta legeztaturako beharrezkoa den guztia.

Kontratista behartuta dago bere kostura instalatzeko beharrezkoak diren seinaleztapenak adierazteko: obrarako sarbidea, lanek hartzen duten zonako zirkulazioa eta arriskugarriak izan daitezkeen puntuak obraren garapenean, aipatu zonan zein bere inguruetan. Seinaleztapen horietan Euskararen gaineko arautegia bete behar da.

Kontratista behartuta dago obra egitera eta haren harrera egin artean hura kontserbatzera. Era berean, behin betiko harrera egin arte, adjudikaziodunak zaindu behar ditu bertan dauden terrenoak eta ondasunak.

Kontratuaren exekuzioak eskatzen dituen eragiketen ondorioz egindako kalte eta galera guztiak indemnitzatu behar ditu kontratistak.

Kontratistak kendu egin behar ditu obratik Zuzendaritza Fakultatiboaren iritziz beren eginkizunak behar bezala betetzen ez dituzten giza baliabideak eta baliabide materialak. Era berean, Zuzendaritzak exijitu ahal izango dio adjudikaziodunari beste baliabide batzuk jartzea obran, aipatu teknikarien ikus-onespenarekin, nabarmena bada jarrita dauzkan baliabideekin ezinezkoa izango dela lanak egitea behar bezalako bermearekin, kalitate, segurtasun eta epeen aldetik.

HOGETA BEDERATZIGARREN KLAUSULA. Exekuzio baldintza bereziak

Plegu honek jasotako kontratua gauzatzeko baldintza izango da, azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege Dekretuaren 9.2 artikuluan ezarritakoa betez, kontratistak obra egiteko enplegatu behar dituen langile berriak langabezia egoeran egotea.

Tolosan 2009ko urtarrilaren 1a baino lehenago erroladatutako langabetuak kontratatu behar dira.

HOGETA HAMARGARREN KLAUSULA. Zigorak

Kontratzaileari zigorra ezarriko zaio ondorengo kausa hautetakoren batean eroriz gero:

a) Exekuzio baldintza bereziak ez betetzea. Plegu honetan zehaztutako exekuzio baldintzetako baten bat ez betetzeak honako zigor hauek ekarriko dizkio kontratistari:

— Arau orokor gisa, haien zenbatekoa kontratuaren aurrekontuaren % 1 izango da, betiere, kontratazio organoak ez-betetzea larria edo oso larria dela arrazoitzen eta adierazten ez badu; kasu horietan % 5 edo gehienez % 10era artekoa izango da, hurrenez hurren. Ez-betetzea behin baino gehiagotan egitea aintzat hartu ahal izango da larritasuna neurtzeko garaian.

— Zigor horiek kontratistari ordaindu beharreko zenbateko osotik edo partzialetik kenduko dira zuzenean; edo, bestela, bermetik, Sektore Publikoko Kontratuen 196.8 artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Adjudikaziodunak exekuzio baldintza bereziak betetzen dituen ala ez egiaztatu ahal izango du kontratazio organoak kontratuaren exekuzio aldiko edozein unetan, eta, kasu guztietan, obren harrera egitean.

Justifikaziorik gabeko ez-betetzea, hain justu, langileen kontratazioa aurreko klausulan adierazitakoaren arabera egiteari buruz bada, arau hauste oso larritzat hartuko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 102.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta adjudikazio zenbatekoaren % 10eko isunarekin zigortuko da.

Kontratistaren ez-betetzeak justifikaziorik badu, kontratistak agiri bidez frogatu beharko du hala dela. Kasu horretan ez du inongo erantzukizunik izango.

b) Betetze akastuna. Betetze akastunengatik hurrengo era honetan zigortuko da:

— Obrak, hartzeko unean, ez badaude hartzeko moduan, kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik.

— Arau orokor gisa, haien zenbatekoa kontratuaren aurrekontuaren % 1 izango da, betiere, kontratazio organoak ez-betetzea larria edo oso larria dela arrazoitzen eta adierazten ez badu; kasu horietan % 5 edo gehienez % 10era artekoa izango da, hurrenez hurren. Ez-betetzea behin baino gehiagotan egitea aintzat hartu ahal izango da larritasuna neurtzeko garaian.

— Kasu guztietan, zigorra ezartzeak ez du akatsak konpontzeko legezko betebeharretik aske utziko.

c) Adjudikazio irizpideak ez betetzeagatik. Kontratistari esleipen irizpideak ez betetzeagatik zigorra ezarriko zaio, hurrengo termino hauetan:

— Kontratuaren exekuzio aldian edo haiek amaitzeko unean kontratistak eskaintzan bere gain hartutako konpromisoren bat bete ez duela antzematen bada, batez ere, kontratua betetzeko erabili beharreko lanekuaren bolumenari dagokionez.

— Kontratistak bete ez duen puntuak esleipen irizpide bati eragiten diola ikusteko, kontuan hartuko da ea bete ez duen irizpidearen puntuei % 25 kenduta, eskaintza hori garaile izango zen ala ez. Kenketa hori dela eta garaile izateari utziko balio, aintzat hartuko da ez-betetzeak esleipen irizpide bati eragiten diola.

— Arau orokor gisa, haien zenbatekoa kontratuaren aurrekontuaren % 1 izango da, betiere, kontratazio organoak ez-betetzea larria edo oso larria dela arrazoitzen eta adierazten ez badu; kasu horietan % 5 edo gehienez % 10era artekoa izango da, hurrenez hurren. Ez-betetzea behin baino gehiagotan egitea aintzat hartu ahal izango da larritasuna neurtzeko garaian.

d) Atzerapenagatik. Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, atzerapenean erortzen bada, amaierako epeari dagokionez edo ezarritako epe partzialei dagokienez, Sektore Publikoko Legearen 196. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio zigorrak ezartzeari dagokionez.

HOGEITA HAMA KAGARREN KLAUSULA. Azpikontratazioa

Ezin izango da azpikontratatu obraren inongo atalik, baldin eta ez bada behar bezala justifikatutako arrazoi teknikoengatik eta organo kontratugilearen baimenarekin. Jarritako baldintzak ez badira betetzen, azpikontratazioaren zenbatekoaren % 50 bitarteko zigorra ezarri ahal izango da.

HOGEITA HAMABIGARREN KLAUSULA. Kontratua betetzea

Kontratuaren harrera egiteko Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 218. artikuluan ezarritakoa beteko da, eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 163. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoa.

Obra harrera egiterakoan, kontratistak bereziki honako obligazio hauek bete dituela aztertuko da:

- Obren azken desokupatzea. Kontratistak hasierako egoeran utzi behar ditu obren eraginpean egondako eremuak eta haiek okupatzen ez dituztenak.
- Kontratua akatsik gabe betetzea
- Adjudikazio irizpideak betetzea.
- Exekuzio baldintzak betetzea.

Kontratuaren exekuzioan enpresa esleipendunak sortutako lanpostuen berri emango dio kontratazio organoari, baita gertatu diren langile berrien alten eta bajen berri ere, dagokion egiaztapen deklarazioa aurkeztuta.

HOGEITA HAMAHIRUGARREN KLAUSULA. Kontratuaren suntsiarazpena

Kontratuaren suntsiarazpena Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205etik 208ra bitarteko artikuluek erregulatuko dute, oro har, eta obra kontratuarentzat, bereziki, Lege horretako 220 artikulutik 222ra bitartekoek, eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 109 artikulutik 113ra bitartekoek eta 172.nak.

Bereziki, kontratua amaitzeko arrazoitzat hartuko da 28. klausularen lehenengo paragrafoan ezarritako exekuzio baldintza ez betetzea, hura oso larritzat jo bada, 29.1 klausularen azken paragrafoan ezarritakoaren arabera.

Edozein kasutan, kontratua kontratistari egotz dakiokkeen arrazoi batengatik suntsitzen bada, Legearen 208.4 artikulua xedatuari jarraituko zaio.

HOGITA HAMALAU GARREN KLAUSULA. Berme epea

Berme epea BI URTEkoa izango da eta harrera egiten den egunetik hasiko da zenbatzen.

Epe horretan Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren 167. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da kontratistaren betebeharrari dagokienez eta, era berean, Administrazioak duen gaitasunari dagokionez, ez-betetzea gertatuz gero, obra kontserbatzeko beharrezkoak diren lanak egiteko kontratistaren kargura.

Berme-aldian obrak kontserbatzeko egiten diren gastu guztiak kontratistaren konturakoak izango dira, eta ez du kontzeptu horrengatik inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Ezinbesteko kasuan gertaturiko kalteak betebeharrari horretatik kanpo geratuko dira eta korporazioak bere gain hartuko ditu, baina hark ahalmena izango du kontratistari konponketa lanak egiteko exijitzeko.

HOGITA HAMABOS GARREN KLAUSULA. Likidazioa

Aurreko klausulak zehazten duen berme epea igaro ostean, kontratuaren likidazioari ekingo zaio, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren 179. artikulua arabera.

HOGITA HAMASEI GARREN KLAUSULA. Jurisdikzioa

Kontratua garatzeko orduan sor daitezkeen gaiak kontratazio organoak erabakiko ditu. Hura amaitzeko hartutako erabakiek administrazio bidea amaituko dute, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu ahal izango dira.

Tolosan, 2009korenan

Alkatea

Stua.:

I ERANSKINA PROPOSAMENAK EGITEKO EREDUA

« jaunak/andreak, jakinerazpenetarako helbide honekin:, kalea, zk.; NAN: , entitatearen izenean (IFK:) diharduela, baduelarik obrak kontratatzeke espedientearen berri, prozedura irekia, eskaintza ekonomiko onuragarriena, adjudikazio irizpide batzuk, Aldizkari Ofizialaren zk.an,egunean, argitaratua, eta kontratatzailearen profilean; adierazten dut, batetik, ezagutzen dudala kontratuaren oinarri den Plegua eta, bestetik, osorik onartzen dudala, lizitazioan parte hartuz eta, era berean, konpromisoa, kontratuaren xede dena egiteko zenbateko oso honen truke: euro, honelaxe xehatuta:euro eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga, euro.

2 zenbakidun gutun azalean enpresaren lan egoera doa, eta, era berean, adierazten dut obraren exekuzioan langile arituko direla, eta horietatik enpresakoak direla eta kontratatuko diren langabetuak.

....., 20__...koarena

Lizitatzzailearen sinadura

Stua.: _____».